

Eman eta emango zaizue

“Eman eta Jainkoak emango dizue: neurri betea, sakatua, estutua eta leporainkoa emango dizue altzora» (Lk 6,38)

Jesusek bere ikasleei esan zien: “Eman eta Jainkoak emango dizue”. Chiara eta bere lehenengo lagunak horrela bizi ziren:



Gau batean txirrinak jo zuen Chiararen fokolarrean. Desesperazioz beteriko gizon bat agertu zen: “Berehala errenta ordaintzen ez badut, etxetik botako dute nire familia”.



Neskek elkarri begiratu eta bere soldaten kaxa ireki zuten. Asko pentsatu gabe, dena eman zioten. Gau hartan pozik egin zuten lo: Jainkoak zainduko zituen...



Hurrengo goizean gizona berriro elorri zen eta esan zien: “Pentsatu ere ez nezakeen ondare bat hartu dut. Bihotzak erdia emateko esaten dit”. Emandakoaren bikoitza zen!



Holandako Jan eta Ton Eguberrien zain zeuden: bere aurrezkiekin ontzi txiki bat erosi nahi zuten etxe ondoko kanaletik ibiltzeko!



Gau batean, TBan beste herrialdetako ume asko miseria gorrian bizi zirela esaten ari ziren. Janek eta Tomek elkarri galdetu zioten: “Eltzeitsuan daukaguna emango al diegu?”. Eta hala egin zuten.



Eguberria iritsi zen. Aitaren lagun bat pakete handi batekin etorri zitzairen. Barruan puzten den ontzi bat zegoen. Puztu eta aitarekin arraunean ibili ziren kanalean!